2011-IX-23
Número **346.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

astekaria

# EDITORIALA

## Astakeria

**Bateragune auziko epaia irtetear zegoela, erabakiak nondik joko zuenaren susmo txarrenak zabaldu ziren hainbat tokitan. Zoritxarrez, susmo horiek baieztatu egin ziren emandako zentzugabeko epaiarekin. Gogoratu behar duela ia bi urte, kasu honekin loturik, hainbat pertsonen atxiloketak izan zirela eta gehiengo sindikalak iniziatiba hartu eta manifestaziorako deialdia burutu zuela Donostian. Makina eragile, alderdi eta herritarrek islaturiko erantzuna itzela izan zen eta kaleak askatasunaren aldeko oihuekin bete ziren.**

**Era horretan, euskal gizartearen gehiengo zabal batek bere ezadostasuna, eta bide batez haserrea, erakutsi nahi izan zuen orduko atxiloketekin. Euskal Herriak bizi duen ataka gordinetik atera nahian atxilotuek eginiko lan eskerga zapuzteko eginiko atxiloketak izan ziren. Ezker abertzalearen jarduna bide zibil eta demokratikoetatik bideratzeko sustatu zuten eztabaida oztopatzea izan zuen helburu espainiar gobernuak, hartara polizia indarrak eta fiskaltza erabiliaz. Oztopoak oztopo –gogora ekarri behar militanteen arteko eztabaida klandestinora behartu zutela–, bidea jorratu da eta egun egoera zeharo ezberdinean gaude. Estatuak, ordea, bere horretan jarraitzen du gurpilari galgak jarriaz. Ezin ahaztu ere prozesu honen epaileak nolako aurreiritziak erakutsi dituen beste sumarioetan.**

**Zeren beldur da estatua? Zergatik lan politikoa egiteari ezartzen zaizkio honako zigorrak? Gauden egoerara ekarri gaituen lan politikoak ez du zertan zigortzerik, ez eta lan hori bultza dutenak. Zentzugabekeria ikaragarria da epaia, eta lekuz kanpo dago, finean larriki urratzen dituelako oinarrizko eskubideak. Iragarri den epai honen aurkako helegitearen harira, aukera du auzitegi gorenak okerra zuzentzeko eta atxilotuak askatzeko. Zuzentasunik gabeko epai honen aurrean bihoakie gure elkartasuna atxilotuei.**

**ELA 100 URTEZ**
*euskal sindikatua*

### ELAk gobernu-ekintzarako proposamenak jasotzen dituen txostena igorri die foru-aldundiei; aurki gauza bera egingo du Nafarroako gobernuarekin

# BESTELAKO GIZARTE BAT HELBURU

ELAk urteak daramatza politika publikoak errotik aldatu behar direla aldarrikatzen. Foru-Aldundiek aldaketa honekiko eginbehar handia daukate; izan ere, eskumen garrantzitsuak dituzte, batik bat fiskalitatean –zergak kudeatzeko ahalmena eta zenbait zergatan arauak ezartzekoa, esaterako PFEZean, Sozietateen Zergan zein Ondarearen gaineko Zergan–, eta gizarte-zerbitzuetan. Hori dela-eta, ELAk erakundeon gobernu-ekintzarako proposamenak egiten ditu, batik bat fiskalitateari, gizarte-zerbitzuei, azpiegiturei eta ingurumenari dagokionez.

ELAk iraileko bigarren astean igorri zizkien aipatu proposamenak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ahaldun-nagusiei. Dagoeneko lehen bilera hitzartuta dago: irailaren 26an Gasteizen, Arabako Diputazioko buru Javier de Andresekin. ELA Bizkaiko zein Gipuzkoako diputazioen erantzunaren zain dago. Bestalde, gure sindikatuak Nafarroari buruzko proposamenak jasotzen dituen txostena datozen egunetan igorriko du.

Gizarte politiken arduradun Mikel Novalek nabarmentzen duenez, gizarte-ereduari dagokionez Hego Euskal Herriaren eta Europako Batasunaren artean bi desberdintasun handi daude: gizarte-babes eta presio fiskal maila askoz baxuagoak. Bi kontuok guztiz lotuta daude.

Hain zuzen, EAEn:

- Gizarte-babesera bideratzen diren baliabide ekonomikoak BPGaren %19 dira; Europako Batasuneko batez besteko maila, berriz, %27an dago. Alde hori dirutan urtean 5.200 milioi euro dira.
- Presio fiskala BPGaren %31 da, eta %41 EBko batez bestekoan. Desberdintasun hori urtean 6.400 milioi euro dira.




Zerga-politika oinarrizkoa da politika ekonomikoan. Funtsezko tresna izan behar du aberastasuna birbanatzeko eta beharrezko diren zerbitzu publikoak hornitzearren aski izango den dirua biltzeko. "Begi-bistakoa da EAEko Foru-Aldundiek egin izan dituzten politikak goitik behera aldatu behar direla, jendearen interesen araberakoak izan daitezen: lehentasuna eman enpleguari eta beronen kalitateari, eta eskubide sozialak gehitu, bizi-baldintzak hobetze aldera. Foru-Aldundiek aldaketa honekiko eginbehar handia daukate".

Azken finean, ELAk foru-aldundien gobernu-ekintzarako egiten dituen proposamenak helburu zehatz bat dutela nabarmentzen du Novalek: gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa eta demokratikoagoa lortzea.

***Oharra:** txostena ELAren web orrialdean eskuratu liteke, osorik. **Nota:** el informe íntegro está disponible en la página web de ELA.*

# CONTRA LOS CIERRES DE DAEWOO Y ESMALTACIONES SAN IGNACIO

Cerca de 2.000 personas se manifestaron el 15 de septiembre en Gasteiz contra el cierre de Daewoo y Esmaltaciones San Ignacio, que cuentan con cerca de 250 trabajadores y trabajadoras entre ambas empresas ubicadas en el polígono de Jundiz.

En el caso de Daewoo, planta dedicada a la fabricación de frigoríficos, la multinacional surcoreana ha presentado un ERE de extinción con el que se pretende dejar sin empleo a sus 147 trabajadores; el ERE está en fase de estudio por parte del Gobierno vasco.

Por su parte, los 89 empleados y empleadas de Esmaltaciones San Ignacio, empresa que fabrica menaje de cocina, luchan por conservar su trabajo después de que el Juzgado de lo Mercantil haya dado el visto bueno a la liquidación del negocio planteada por la compañía.

ELA quiere denunciar las importantes ayudas económicas recibidas por ambas empresas desde las instituciones públicas, y exige su devolución ante el incumplimiento por parte de estas de los compromisos adquiridos en materia de empleo.



## Propuestas a la acción de gobierno de las Diputaciones Forales

# POR UN SOCIEDAD MÁS JUSTA, SOLIDARIA Y DEMOCRÁTICA




*ELA realizó en 2009 una campaña para exigir un reparto más justo de la riqueza. En la fotografía una de las manifestaciones de Gasteiz.*

**En junio se constituyeron las nuevas Diputaciones de la CAPV y Navarra derivadas de los resultados electorales de mayo. Con este motivo –y como suele ser habitual desde hace unos años– ELA ha elaborado un diagnóstico de la situación actual a nivel social, laboral y político, así como un catálogo de propuestas para caminar hacia una sociedad más justa, solidaria y democrática. La pasada semana ELA envió por escrito estas propuestas a los respectivos diputados forales al tiempo que solicitó de manera oficial una reunión para explicar el contenido de las mismas y lo que ELA entiende que debe ser el espíritu de la acción de gobierno de las Diputaciones. El lunes 26 de septiembre estaba prevista la primera reunión, con el Diputado General de Araba, Javier de Andrés. Los diputados generales de Bizkaia y Gipuzkoa todavía no han respondido a nuestro requerimiento. A continuación, recogemos un amplio extracto de las propuestas.**

## I- POLÍTICA FISCAL

ELA considera imprescindible modificar sustancialmente el injusto sistema fiscal existente en la CAPV. Proponemos actuaciones que únicamente requieren voluntad política para llevarse a cabo, señalando su repercusión económica en los casos en que nos sea posible la concreción.

**Lucha contra el fraude fiscal:**

La lucha contra el enorme fraude fiscal existente en las rentas no salariales requiere:

- Inspeccionar todas las rentas no salariales (en IRPF, Impuesto sobre Sociedades e IVA) antes de que prescriba el fraude (es decir, hay que pasar de inspeccionar anualmente menos del 1% de este colectivo al 20%).
- Incremento notable de medios humanos, en consonancia con el aumento necesario de las inspecciones.
- Suprimir el régimen de módulos del régimen de estimación objetiva del IRPF. Este sistema permite que legalmente se paguen menos impuestos que los que correspondería de aplicar la tarifa del IRPF, lo cual no es aceptable.
- Realizar un análisis exhaustivo de los mecanismos legales que permiten pagar menos impuestos, y proceder a su eliminación.
- Elaborar estudios periódicos sobre el fraude fiscal.

**IRPF:**

ELA demanda en el IRPF:

- Recuperar la progresividad perdida en la escala de impuesto. Ésta debería modificarse, reduciendo el tipo aplicable a las rentas más bajas (que ha subido) y aumentando los tipos a las rentas más altas. En concreto, el actual tipo marginal del 45% debería volver al 56% existente hace unos años.
- Dar igual tratamiento a todas las rentas. Hay que eliminar el trato privilegiado de las rentas de capital, que tributan a un tipo fijo, inferior al mínimo de la tarifa general. Todos los ingresos deben tener el mismo tratamiento. La base imponible del impuesto debe ser única. Actualmente, para obtener la cuota íntegra, a la base liquidable general se le aplica la escala del Impuesto, mientras que a la base liquidable del ahorro se le aplica el tipo de gravamen único del 20%.

**Impuesto sobre Sociedades:**

ELA plantea en el Impuesto sobre Sociedades:

- Establecer un único tipo nominal del Impuesto sobre Sociedades, fijado en el 35%.
- Reducción drástica de las deducciones fiscales que hacen que actualmente el tipo efectivo sea apenas la mitad del nominal.

Respecto a las vacaciones fiscales, ELA demanda que las empresas devuelvan a las Haciendas las ventajas declaradas ilegales, y que las sanciones que hubiera que abonar a Bruselas se financien estableciendo un recargo temporal en el Impuesto sobre Sociedades, ya que de lo contrario sería asumido fundamentalmente por los impuestos pagados por los trabajadores/as.

**Impuesto sobre el Patrimonio**

El Impuesto sobre el Patrimonio debe ser restaurado, con una formulación más ambiciosa que la existente cuando fue eliminado por las Haciendas forales. En el último ejercicio que se declaró, el correspondiente a 2007, este impuesto supuso más de 180 millones de euros de recaudación.

**Mecanismos de participación social**

Debe realizarse un proceso participativo para definir la política fiscal. Asimismo la consulta a la sociedad en esta materia debe ser un instrumento a utilizar para las reformas fiscales.

**Legislar en materia fiscal desde el Parlamento Vasco**

La ley de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal especifica que el Parlamento Vasco tiene competencias fiscales. Las entes forales se refugian en el Concierto Económico y en el Estatuto de Autonomía para defender su competencia en materia fiscal. Sin embargo, la realidad es que hasta ahora las reformas fiscales se han acordado y propuesto en el Órgano de Coordinación Tributaria, compuesto a partes iguales por el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales, lo que significa que el Gobierno Vasco tiene mucho que decir sobre la política fiscal.

**Cuantificación económica de algunas de estas medidas**

La falta de información y transparencia de las haciendas de la CAPV dificulta enormemente la cuantificación económica de estas medidas. Sin embargo, en algunos casos se puede estimar, de manera bastante aproximada, cuánto dinero ingresarían al año las Diputaciones Forales. Los datos son escandalosos, y muestran el enorme margen que existe para aplicar una fiscalidad diferente, al servicio de las necesidades de la ciudadanía.

**ELA ha podido cuantificar que:**

- Si quienes realizan actividades empresariales y profesionales declarasen en el IRPF unos ingresos medios iguales a quienes tienen rentas de trabajo, en el IRPF se recaudarían al año 282 millones de euros más. La recaudación por IVA crecería otros 250 millones de euros, ya que el fraude en el IRPF supone también fraude en el IVA.
- Si el tipo marginal máximo del IRPF pasase del 45 al 56% (sin cambios añadidos en la tarifa) se recaudarían al año 291 millones de euros más. Esto supone que las personas que más ingresos declaran pagarían de media casi 10.000 euros más que ahora.
- Restaurar el Impuesto sobre el Patrimonio que eliminaron las Haciendas de la CAPV supondría recaudar al año 180 millones de euros más.
- Establecer en el Impuesto sobre Sociedades el tipo nominal en el 35% supondría recaudar al año 900 millones de euros más.
- Es decir, la aplicación de las medidas que hemos podido cuantificar (que son sólo una parte de las necesarias) supondría recaudar al año 1.903 millones de euros más de los que se recaudan.

## 2- SERVICIOS SOCIALES

ELA demanda un sistema público de servicios sociales, universal y gratuito. Las Diputaciones Forales tienen la responsabilidad de garantizar este sistema en su territorio de actuación, así como de reconocer en cada ámbito el derecho de las personas dependientes a tener acceso a un servicio que permita cubrir sus necesidades.

**Las propuestas de ELA son:**

- Reconocer en cada territorio el derecho de todas las personas dependientes a tener acceso a un servicio que cubra su situación, ofrecido por un sistema público, universal y gratuito.
- Impulsar el reconocimiento de este derecho en el Parlamento Vasco, así como en la Cartera de Servicios y Prestaciones, que está pendiente de aprobar a pesar de que la ley fijaba un plazo para ello que finalizó hace casi dos años.




■ Aumentar los recursos económicos destinados a los servicios sociales para dotarse de plazas suficientes para cubrir esas necesidades, con el consiguiente y notable aumento del empleo en estos sectores.

## 3- INFRAESTRUCTURAS Y MEDIO AMBIENTE

**Propuestas de actuación**

- Mejorar y extender el transporte público, para que el conjunto de la población tenga un servicio público de calidad y asequible, que haga que el transporte público sea la mejor alternativa.
- La decisión de construir nuevas carreteras y ocupar nuevos suelos debe ser la última opción, después de mejorar otras políticas y las carreteras ya existentes.
- La eliminación o no imposición de peajes en las carreteras que pertenecen a las Diputaciones Forales.
- La gestión de residuos debe seguir la jerarquía de la Directiva Europea: prevención, reutilización, reciclado, valorización y eliminación. Se deben impulsar y aplicar alternativas como la recogida selectiva puerta a puerta, el compostaje, y otras técnicas de valorización y eliminación no perjudiciales para la salud y el medioambiente, rechazando la incineración.
- Las diputaciones no deben dar cobertura política ni económica a infraestructuras y políticas territoriales insostenibles e innecesarias (como el TAV o el Puerto de Pasaia), y deben exigir y plantear otras alternativas para el desarrollo realmente sostenible del territorio.

## 4- PROFUNDIZACIÓN DEMOCRÁTICA, TRANSPARENCIA Y PARTICIPACIÓN SOCIAL

ELA considera necesario impulsar una cultura política democrática. Para ello es necesario avanzar en las siguientes líneas de trabajo:

❍ Utilización de los referéndums como método de participación a la hora de determinar las decisiones políticas. .

❍ Hacer públicas las relaciones (agendas) de los responsables políticos.

❍ Eliminación de entes como Gipuzkoa Aurrera, que suponen poner en manos privadas la decisión sobre las prioridades de la acción institucional.

❍ Es necesario garantizar el acceso a los documentos oficiales. Esta información debe ser accesible al público en general y a las organizaciones sociales.

❍ Extensión del régimen de incompatibilidades.

## 5- CONDICIONES DE TRABAJO DEL PERSONAL DE LAS DIPUTACIONES FORALES

ELA considera imprescindible que se dé respuesta inmediata a todo lo relacionado con las condiciones de trabajo en las Instituciones Forales y a lo que concierne al empleo y los efectos que produce la subcontratación del mismo. Para ello planteamos:

■ Incrementos salariales por encima del IPC.

■ La convocatoria de OPEs que garanticen el empleo público y atajen las situaciones de eventualidad impulsadas los últimos años por los diferentes gobiernos, minimizando las bolsas de trabajo y reduciendo de forma significativa la precariedad.

■ Que se tomen las decisiones pertinentes para renunciar a subcontratar más servicios.

■ Avanzar en las medidas que posibiliten el impulso a la conciliación de la vida laboral y familiar así como la seguridad y salud en el trabajo.

■ En relación a los servicios subcontratados es necesario:

★ Avanzar en que sean prestados directamente por la administración, respetando el derecho de los trabajadores y trabajadores actuales a seguir ocupando sus puestos de trabajo.

★ Dar los pasos oportunos en la equiparación de las condiciones de trabajo entre las trabajadoras y trabajadores subcontratados (incluyendo la subcontratación en las empresas públicas y en las participadas) y los empleados y empleadas públicos.

★ Plena garantía de la subrogación (mantenimiento del empleo y del conjunto de las condiciones de trabajo), en los procesos de adjudicación de los servicios ya subcontratados.

■ Medidas, compromisos y vigilancia activa de las Instituciones forales para garantizar la aplicación de los convenios colectivos vigentes en las diferentes empresas que trabajen para las Diputaciones en todos y cada uno de los diferentes departamentos.

■ Que sean garantes de las condiciones de vida del conjunto de los trabajadores y trabajadoras de los diferentes territorios, exigiendo a las empresas el respeto a los derechos y las condiciones laborales de los y las trabajadoras y tomando las medidas oportunas en los casos en los que se acredite que esto no sucede.

■ En definitiva, solicitamos a las Instituciones forales que den los pasos necesarios para acreditar su compromiso con el empleo y las condiciones del mismo en la administración y garantizar la desaparición de la precariedad de las Instituciones forales.

# Laburrak / Breves

## • Urriaren 27an greba Nafarroako hezkuntza publikoan

Nafarroako hezkuntza publikoan ordezkaritza duten sindikatuek greba deitu dute urriaren 27rako. Deialdiaren helburua Nafarroako Gobernuak hezkuntza publiko ez-unibertsitarioan egin nahi dituen murrizketak salatzea da. Bestalde, urrian zehar egun batzuetarako lanuzteak antolatu dituzte ordezkaritza duten bederatzi sindikatuek: urriaren 18rako ordubetekoa haur eta lehen hezkuntzan, 20rako ere ordubetekoa bigarren hezkuntzan eta lanbide hezkuntzan, eta bi ordukoa 25erako ikastetxe guztietan.

## • Eusko Jaurlaritzak kea saldu nahi du immigrazioaren beharrei erantzun ordez

Eusko Jaurlaritzak Gizarte Gaietako sailaren bitartez berriki iragarri du EAEn *Immigrazioari buruzko Itun Sozial* bat egin nahi duela. ELAren ustez, Plan hau ez da sinesgarria, ez benetakoa, Lopezen gobernuak immigrazio gaietan daraman politika ikusita. Irudi-kanpaina bat besterik ez dute egin nahi, zinezko immigrazio politikarik ez dagoela ezkutatzeko. Erabakiok, eta beste hainbat jokabidek –lanbaimenak eta senideak biltzeko baimenak ebazteko utzikeria, baimen administratiboak tramitatzeko tasen igoera onartu izana, edota Atzerritarren Legearekiko adostasuna– agerian uzten dute integrazio eta eskubideak aitortzeko politika batekin duen konpromiso eza. ELAren irudiko, Jaurlaritzak oraindik ez die immigranteen beharrei erantzunik eman; horrenbestez, lehenbailehen Immigrazio Plan bati ekitea eskatzen dugu, eta ez dugu onartzen itxaropen ustelak piztu ditzakeen planik, jende immigrantearen oinarrizko beharrizanak asetzen ez dituen artean.

## • Bizkaiko hirugarren adinerako egoitza pribatuetako lan hitzarmena sinatuta

Uztailean bideraturiko aurreakordioan oinarrituz, irailaren 15ean Bizkaiko Hirugarren Adinerako Egoitza Pribatuetarako Lan Hitzarmena sinatu zen; akordioak 4.300 langilerengan du eragina. Aurreakordioa uztailean lortu zen, bi urte luzetako borroka sindikalaren ostean. ELAk erabateko gehiengoa du sektorean, ordezkaritzaren % 61 hain zuzen.

Hitzarmenak abantaila ugari izango ditu sektoreko langileentzat: 2011. urterako %5,35eko eta 2012rako %5eko soldata igoerak; zortzi ordutako lanaldi murrizketa; beste zortzi ordu senitartekoak medikuetara laguntzeko; antzinatasunagatik zein igandeetan lan egiteagatik plusak; dietei dagozkien osagarrietako abantailak; azken urteetako lan erreformak ezarritako zenbait murrizketei so esango dizkien hainbat atal...

## • ELAk Kukutzaren itxiera salatzen du

Epailearen aginduz Ertzaintzak Bilboko Kukutza gaztetxea itxi zuen irailaren 21eko goizaldean. ELAren Bilboko eskualde-batzak bat egin du Kukutza mantentzeko dagoen mobilizazio sozialarekin. Halaber, sindikatu honek kritika egin dio Ertzaintzari, bere esku-hartzea neurrigabea izan baita. ELAk uste du kultur-ekimen herrikoi, sozial eta autogestionatuak gizarteen osasun demokratikorako ezinbesteko aktibo bat direla, alternatiba progresista ematen baitiete erakundeen eskema estandarizatuei. Bilboko Udalaren jokabide salatu beharrean gaude berriro, izan ere, ez baitu bere ardura politikoa aintzat hartu, eta ez da saiatu hain errotuta dagoen mugimendu kultural eta sozial batek iraun dezan irtenbide egoki bat bilatzen. Aitzitik, bere ardura hirigintza-arautegian ezkutatu baino ez du egin, eta honek partikular baten interes espekulatiboak babesten ditu.




## • Bateragune auziko epaia zentzugabekeria juridikoa da




ELAk bat egiten zuen hainbat eragile politiko eta sozialek Bateragune auziko epaiaren aurka irailaren 24erako deitutako manifestazioarekin. Sindikatu honen iritziz, Auzitegi Nazionalaren epaia zentzugabekeri juridikoa eta astakeria galanta da. Gainera, ELAk Bateragune auzian kartzelaratutako bost pertsonen behin-betiko askatasuna exijitzen du. Ezkerreko irudian gehiengo sindikalak epaia salatzeko irailaren 19an deitu zuen Bilboko bilkurako argazkia. Donostian, Gasteizen eta Iruñean ere izan ziren bilkurak.

**ELA-Zerbitzuak-eko idazkari nagusi Igor Eizagirre Kutxa Bankeko sorreraren inguruan mintzo da**

# “EDUKIAK ZEHAZTEN DU AKORDIO BAT ONA EDO TXARRA DEN, EZ NORK SINATU DUEN”



ELAk Kutxa Bank bankuaren sorrera dela-eta duen iritzia aurkeztu zuen irailaren 21ean Donostian. ELA-Zerbitzuak federazioko idazkari nagusi Igor Eizagirrek nabarmentzen duenez, gure sindikatuak ezezko botoa emango du bategite honen aurka parte-hartzen duen Kutxetako Administrazio-Kontseiluetan zein Batzar Orokorretan.

**-ELA oso kritikoa izan da Kutxa Bank izeneko bankua sortzeko aurrera eraman den prozesuarekin. Zergatik?**

-Azken hiletan hainbat agiritan kargu hartu diogu prozesua egiteko erari, gardentasunik eta kontsultarik gabea izan baita. Behin eta berriz agertu dugu hautatu den bat egiteko moduaren aurkako jarrera, bankua sortzearen aurkakoa alegia, horrek dakarrena medio. Kutxetako zuzendaritzei, gainera, exijitu izan diegu erakunde berrian Hego Euskal Herrian lan egingo dutenen baldintzak esparru honetako hitzarmen batean finkatuko direlako konpromisoa. Ikusten dugu gure proposamenak ez dituztela kontutan hartu, eta, noski, horren aurrean gure jarrera kritikoan tinko mantendu gera.

**-Aurkeztu berri dugun dokumentuak Kutxa Bank benetan zer izango den azaltzea du helburu. Zergatik?**

-Ezinbestekoa iruditzen zitzaigun egoeraren inguruko azterketa eguneratua egitea. Txostena interes handikoa dela iruditzen zait, eta edonoren esku dago, web atalean. Batetik egungo finantza-sistemaren inguruko azterketa egiten da, eta, bestetik, bat-egite honen aurka dugun kontrako jarreraren zergatiak azaltzen ditugu.

**-Zeintzuk izango lirateke zergati horiek?**

-Lan-harremanei dagokionez, estatu-esparrua lehenesten da. Guk, noski, kutxetako hitzarmenetan euskal esparrua aldarrikatu izan dugu Hego Euskal Herrian lan egiten duten guztientzat, baina ikusten dugu ez dagoela borondaterik hitzarmen propioa lortzeko helburura jotzeko.

Bestalde, Kutxa Banken kapital pribatua sartzeko aukera ahalbidetzen da, baldintza batzuekin; hori egiteko bideak ere zehazten dituzte. Ildo horretan, aurrezki-kutxen egiteko soziala kaltetuta geratzen da, eta ez bakarrik gizarte-ekintza. Atal honetara etekinen %30a bideratzea Kutxa Banken esku izango da, eta beronek beti izango du konpromisoa saihesteko modua, finantza-kaudimena hobetu beharra argudiatuta. Azken finean, ez da bermatzen gizarte-ekintzarako baliabide egonkorrik.

Hori guztiagatik, eta beste hainbat arrazoiengatik, ezetz esaten diogu bategiteari.

## El por qué de nuestro rechazo a esta integración

■ Es un paso más dentro de las reformas emprendidas en el sector financiero, que tienen por objeto la privatización de todo el sector, restando eficacia a un sector como el de las Cajas que debiera tener como objetivo equilibrar la hegemonía financiera del sector privado. La crisis se ha generado por la desregulación financiera, el creciente papel de la economía especulativa y la primacía de la ideología del libre mercado. Un mayor peso y control público de las Cajas era necesario, y en lugar de ello se opta por la bancarización.

■ Las constantes menciones a lo que obliguen en el futuro la normativa aplicable o determinados organismos, realizadas en el actual contexto de privatizaciones, muestra que las entidades son conscientes de que se va a avanzar en esta dirección.

■ La bancarización ha sido la decisión previa de partida, desechando otras alternativas. ELA consideraba y considera que la fusión de las Cajas en una nueva Caja es lo más adecuado. La conversión en Banco supone renunciar a una referencia en un contexto de desregulación creciente.

■ No se cierran las puertas a la entrada del capital privado. Al contrario, esta posibilidad se deja abierta y se establecen los mecanismos para llevarlos a cabo.

■ Aumentar de tamaño no es ninguna solución. Entidades de gran tamaño han caído y, como hemos mencionado, la salud de la gran banca europea no es, precisamente, envidiable.

■ La función social de las Cajas de Ahorro sale perjudicada, lo que no solo afecta a la Obra Social. Destinar el 30% de los beneficios a este apartado dependerá de la voluntad de Kutxa Bank, que siempre podrá eludir este compromiso interpretando que es necesario reforzar su solvencia financiera.

■ El Contrato de Integración no reconoce el derecho de los trabajadores y trabajadoras de las Cajas de Hego Euskal Herria a contar con un convenio propio. Además, el acuerdo alcanzado en la Mesa Laboral especifica el compromiso de las Cajas de firmar, antes de finalizar 2013, un convenio estatal para el conjunto de los trabajadores y trabajadoras de Kutxa Bank.

■ El proceso se ha llevado a cabo con total opacidad, sin debate social. Esta forma de hacer las cosas, en las que no se tiene en cuenta a las organizaciones sociales y sindicales, ha sido la opción de las Cajas, y de todos los partidos políticos. Bildu tampoco ha hablado con ELA antes del acuerdo firmado.

■ No se garantiza una dotación estable para la obra social.

■ Para ELA los acuerdos son buenos o malos en función de sus contenidos, no por quiénes los suscriben.

**www.ela-sindikatua.org**

**Franqueo concertado nº 08/207**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

**www.ela-sindikatua.org**